



1. Bazkariaren momentua. Nafarroan indarrean dagoen araudian, elikaduraz hitz egiten da. Elikadura, garapen fisiko, emozional eta sozialean laguntzen duen ezinbesteko ikaskuntzat hartzen da, eguneroko esperientziatik ohitura osasungarriak hartzea sustatzen da eta autonomia pertsonalarekin lotzen da.

a. Bazkariaren inguruan zein helburu daudela esanen zenuke?

b. Deskribatu nola egingen zenuke bazkariaren antolaketa 0 eta 3 urte bitarteko hurrekin eta zein irizpideren baitan egingen zenuke?

2. 28 hilabeteko Anek hozka egin dio adin berdineko Mikeli. Mikelek Aneri panpina (bere atxikimendu objektua dena) kendu dio eta belardira bota du. Zikindu egin da. Mikelen aita haurraren bila etorri denean eta gertatutakoa kontatu diozunean haserretu egin da; ea zu, zertan zeunden galdetu dizu.

a. Zer egingo zenuke gatazkan?

b. Nola kudeatuko zenuke Mikelen aitarekin egoera?